

HERBESTEKO ELERTIAK

OREÑA

(GERKERATIK EUSKERATUA)

Mendian azten dira oreñak, enda oin-bizkoia, adar-edera, begiandia, polita, bizkañabara, orañentsua, argitsua, ibai-igarotzalea, buru-garaia, bizkañ-sendoa ta beso-oin-mea. Samea bedara ta makala dabe, buztana bafiz labur-labura, surak laukotxak ala lau zulodunak eta laurak arnasa-bideak, biotza makala ta bafurantzako arnasea indargea, ta bere adarak makal-makalak dira-ta egundo be bere arerioari adarka eztagitso, ez pizti indartsuei, ez zakur gogaikariei, ezta erbi iztauletsu-bildurtiei be.

Adar ederdun arak, adar erditsiak daukiezalako-edo, beste pizti guztiek eta abereak baño askoz be aragoak dira. Adar kimutsuak daukiez, eta euren arokizun diran adar kimutsuok yausten yakezanean luia atxurtuta luñean sartu daroez bide-zidor aretatik zeaf datofkenen batek artu eztagizan-edo, ta sastraka sartatu ta uñeñekoetan ezkutetan edo ostenduten dira, len gora eragita arto ebalten ebezan buruak bilustuta abere-arñean ageñzen lotsa diralako-edo.


Oreñak ur-legoñtiak, edo uretan naiz legoñean bixitekoak dira oreñak. Bixi legoñean bixiten dira, ofaitio be baña itxasoan be sartzen dira; itxasoa igaroten dabenean itxaspide bat daroe ta alkari laguntzen dautse; efeskadan dagie itxaspidea, ta bat eroaten

dabe eřeskada-burutzat, lemazañiak lez ontzi-lemea zuzenduteko; eřeskadan bakotxak auřekoaren mokof-gañean yařten dau buru adařtsua; aonan batak bestea guztiak alkař daroela ebaten dabe itxasoa. Auřendaria igerika ta burua goyan eroaten nekatu danean, eřeskadeari auřera yoaten itxita bera eřeskadan atzenengo sařtzen da, ta len bigařen zana orain auřendari yařten da, arik eta berau be nekatuta eřeskadearen atzera yoanařte, irugařenari auřendari-tzea isteko, ta aonan guztiak egiten dabe auřendan aldizka, ta oñakaz ařaunakaz lez bultzetan dabe itxas-urbaltza, ta euren adařen ikuskixun atsegingařia, ontzi oyal axeak puztuak bai litzazan, gora yařiten da.


Oreña luzaro bixi oi-da, ta augaitik gerkařak oreñari *tetrakořonon* (1) deritxoe.

LARA KOETXEA' TA R B. J.

Oñati.



(1) Gerkeraz *tetrakořonon* lau bela-mika aña bixi dana da.



EUSKAL

ESNALEA



1926

URIĀ

274'g zenbakia